

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak finantza baliabide batzuk izan beharko ditu, lehenengo urtetik aurrera, lokalaren, publizitatearen, aseguruaren, langileen eta makinen eta hauen mantenua kostuak gure bezeroen kuotekin ordaintzeko gai izango gara, eta argindarra eta ura gure autofinantziazioaren bidez ordainduko ditugu. Hala ere, enpresa sortzeko, hasieran, bankuari eskatutako kredituaz eta bakoitzak aurrez dituen aurrezkiez baliatuko gara. Kontuan izan behar dugu gainera, gimnasioko langile guztiak enpresaren sortzaile direla, beraz, hasieran hauen soldata baxuagoa izateak arazo larririk ez dakar.

Enpresaren eskubideei dagokionez, ez dugu arazorik izango; izan ere, gure oso gertuko lagun bat, abokatu da eta gustura aholkatu eta lagunduko digula esan digunez, arazoren bat edo aholkuren bat behar izateak ez digu kosturik eragingo.

Gure administrazioko langilea oso ona da pertsonekin hitz egiten eta erlazionatzen, gainera oso ordenatua da eta dena antolatzen trebea. Azkenik, oso trebea da kontuak eramaten. Hori gutxi balitz, sare sozialetan ere oso ondo moldatzen da eta horregatik hauen kudeaketa nagusiaz bera arduratuko da.

Hala ere, gaur egun denok sare sozialetan ibiltzen ondo moldatzen garenez, entrenadoreek ere, gimnasioko argazkiak atera eta sare sozialetan informazioa eta publizitatea egiteko askatasuna izango dute, enpresan bostek soilik lan egingo dugunez, oso erraza baita gure arteko komunikazio egokia bermatzea.

Giza baliabideekin jarraituz, enpresan bi entrenatzaile esperto egongo dira. Bizikleta eta korrikako entrenatzaileak izan dira eta hainbat formakuntza eta ikastaro jaso dituzte, gimnasioko materiala erabiliz forma fisiko egokia hartzeko. Gainera, jendearekin zuzeneko kontaktua edukitzea gustatzen zaie, horregatik bi entrenatzaile hauek zuzeneko harremana mantenduko dute, eta bezeroak animatu eta entrenatzeaz arduratuko dira, ariketa fisikoari eta gorputzari buruz duten jakintza baliatuko dute horretarako.

Azkenik, gimnasio bateko baliabide garrantzitsuenak fisikoak dira, gimnasioan material asko baitago. Administrazioarako beharrezkoa izango da enpresako ordenagailu bat, mugikor bat eta wifi-a. Material guzti hauek, guk

baditugu wifi-a izan ezik, hau telefonia etxe bati erosiko diogu. Gimnasioari dagokionez hainbat material egongo da bertan: elektrizitatea gordetzeko makina bat, lau zinta eta lau bizikleta, bi eliptika eta bi arraun egiteko makina, guzti hauek energia sortzeko eta autofinantziaziorako balioko digute. Horrez gain, bost esterilla, TRX-eko zinta bat, hiru banku eta sei pesa egongo dira (hiru motatakoak), hauek guztiak hornitzaileari eskatuko dizkiogu.